

01

UNIBERTSITATE MAILAKO
SOZIOLINGUISTIKAREN
IRAKASKUNTZA

SOZIOLINGUISTIKA IKASKETAK UPV/EHUKO HIRU KANPUSETAN

Maitena Etxeberria

(Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila-UPV/EHU)

Xabier Isasi

(UEUko kidea eta UPV/EHUKo irakaslea)

Iñaki Martínez de Luna

(Soziologia Saila-UPV/EHU)

Helbide elektronikoak: maitenaetx@euskalnet.net xabier.isasi@ehu.es

imlpaisi@euskalnet.net

BAT aldizkariaren abenduko dossierrean, gaur egun Euskal Herrian sozio-linguistikaren eremuko irakaskuntzaren egoera zein den azaldu nahi izan dugu, irakaskuntza maila guztietan eta lurraldez lurralde.

Euskal Herriko Unibertsitate publikoaren egoeraz hitz egiteko, UPV/EHUKo Arabako, Bizkaiko, eta Gipuzkoako kanpusetako eskaintza-aren berri emateko eskatu diegu bertan irakasle lanetan ari diren hiru irakasleri. Eta hiru ekarpen horiek biltzen ditu artikulu honek.

Ezer baino lehen, hiru ekarpen horien izaera ezberdina azpimarratu nahi genuke. Kanpus bakoitzeko eskaintza maila ezberdinekoa dela kontuan harturik, ezin izan dugu gure eskaera parametro zehatz batzuen gainean egin. Edo hala egiten saiatu bagara ere, kanpus bakoitzetik egin duguten ekarpena zaila izan da eskema bakar batean biltzea. Hala ere, eta aurrez aipatu dugun eskaintza mailaren ezberdintasuna aintzat harturik, interesgarria iruditu zaigu ekarpenak bere horretan eskaintzea, egile bakoitzak bere ekarpenari eman dion ikuspuntua errespetatuz.

Behin hori azalduta, jarraian doazkizue UPV/EHUKo kanpus bakoitzetik jaso ditugun ekarpenak:

- Arabako Kanpuseko eskaintzaren berri Maitena Etxeberriak eman digu. Bertan, UPV/EHUko Filologia, Geografia, eta Historia Fakultateko soziolinguistika ikasketen inguruan aritu zaigu egilea.

- Bizkaiko Kanpusetik Iñaki Martinez de Lunaren ekarpena jaso dugu. Bertan, Soziologia Lizentziaturan antolatu zen "Hizkuntzaren Soziologiaren Ibilbidea" ren berri emateaz gain (hasierako diseinua, non irakasgaiak, irakasleak, helburuak etab. agertzen diren), gaiaren inguruko balorazio bat egiten digu egileak.

- Azkenik, Xabier Isasi irakasleak, Gipuzkoako UPV/EHUko egoeraren berri ematearekin batera, Gipuzkoan soziolinguistikaren inguruan dagoen eskaintza ere aipagai izan du bere ekarpenean.